

JANGELA

Langile ikastolak jangela-zerbitzua eskaintzen du bere hiru eraikuntzetan.

AUSOLAGUN entpresa da zerbitzuaren hornitzailea.

Jangela-zerbitzua irailetik ekainera eskaintzen da.

MEABE

Meaben Haur Hezkuntzako 2, 3 eta 4 urteko ikasleek bazkaltzen dute.

Janaria bertan prestatzen da (in situ). Ausolagunek lehengaiak ekartzen ditu, eta bertako sukaldariak prestatzen dute otordua.

Jangela azken solairuan kokatuta dago. Ikasleek bi eremu ezberdinetan bazkaltzen dute: HH2-4 urteko ikasleak jangelan eta HH3 urtekoak jangela ondoko gela batean.

BIDEBIETA

Bidebietan HH5 urteko ikasleek bazkaltzen dute txanda bakarrean.

Auzolanek janaria prestatuta ekartzen du (garraiatua).

LAUBIDIETA

Laubidietako LH-ko ikasleek bazkaltzen dute (6-12 urtekoak).

Ausolagunek janaria eginda ekartzen du (garraiatua). Bi txandatan bazkaltzen dute:

1. TXANDA: LH1-2-3 mailakoak. Eguerdiko 12:15etatik 13:00etara
2. TXANDA: LH4-5-6 mailakoak. Eguerdiko 13:30etatik 14:30etara

Irailan eta ekainean bazkaltzeko ordua aldatzen da.